

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

18 ikastetxeetako 1.000 ikasletik gora izango dira Berrikuntza, Sorkuntza eta Ekintzailtzaren VII astean

Jardunaldiak astelehenean hasiko dira Iruñean eta asteazkenean Tuteran eta Elizondora gerturatuko dira

Ostirala, 2018.eko martxoak 2

Astelehen honetan hasiko dira Hezkuntza Departamentuak eta Caja Navarra Fundazioak antolatutako Berrikuntza, Sorkuntza eta Ekintzailtzako jardunaldiak. Hauek, martxoaren 9^a bitartean Civican, Caja Navarra fundazioaren aretoan burutuko dira. Martxoaren 7ko jardunaldia, berriz, Tuterako Ikastetxe politeknikoan eta Elizondoko Lanbide Eskolan izango da.

Zazpigarren edizio honek Elizondon lehendabizikoz egindako ekimenari jarraipena emango dio. Jardunaldi hau euskara hutsean egingo da Elizondoko zein Berako ikastetxeetako ikasleekin. Gainera, astelehen honetan hasiko diren jardunaldien aurretik, pasaden otsailaren 6an Civicanen bertan Lanbide Heziketako zuzendaritza taldeei eta irakasleei zuzendutako ekintza formatiboak burutu ziren.

Aste honetan zehar Nafarroako 18 ikastetxeetako Lanbide Heziketako Goi Mailako lehen zikloko 1.000 ikasle inguruk parte hartuko dute. Jardunaldi hauen helburua Nafarroako Lanbide Heziketaren inguruan berrikuntza, sorkuntza eta ekintzailtza bultzatzea da, hortaz jardunaldiak ikasle zein profesionalei daude zuzenduta. Gainontzeko erkidegoetan burutzen ez den ekimen berritzailea da.

Lan mundura gerturatuko diren Lanbide Heziketako ikasleei berrikuntza, sorkuntza eta ekintzailtza lantzeko metodologiak helaraztea da helburuetariko bat. Horretarako, aditu ezberdinek aste guztian zehar gai ezberdinak landuko dituzten hamabost tailer eskainiko dituzte.

Jardunaldi hauen ordutegia goizeko 09:00etatik 13:30etara izango dira. Martxoak 7, asteazkeneko jardunaldia Elizondo eta Tuteran izango da bertako ikasleei ekimena hurbiltzeko asmoarekin. Trebetasun komunikatiboak, teknika sortzaileak zein lana bilatzeko estrategiak dira tailerretan eskainiko diren gaietariko batzuk.

Jardunaldiei astelehena goizeko 09:00etan emango die hasiera Civicanen Roberto Perez, Hezkuntzako Zuzendari orokorrak, eta itxiera ekitaldia areto berean egingo da martxoaren 9an, 13:00etan. Jardunaldi hauetan ere parte hartuko dute honako elkarteek: CEIN, ANEL, AIN, Nafarroako Ganbera, Acción Contra el Hambre, FOREM, AMEDNA, AJE eta Navarra Televisión.